



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko maiatzaren 13a

48 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—6/2002 Foru Legea, martxoaren 27koa, Nafarroako Nekazaritza Ganberari buruzko apirilaren 6ko 4/1998 Foru Legea aldatzekoa. Akats zuzenketa (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2002-2003 ikasterterako beken deialdian errenta mugak eta beken zenbatekoa igo ditzan, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (4. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 10 langile baino gutxiagoko enpresak Interneten sartzeko laguntza kanpaina bat egin dezan, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da bide eman dezan enbrioi izoztuak enbrioi zelula amak eskuratzeko eta zientzia ikerketak sustatzeko erabiltzeko, Socialistas del Parlamento de Navarra, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua eta Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko taldeek, eta foru parlamentari milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da SOS Nafarroako sendagileen lanpostuen bitarteko izaerak eragindako egoera konpon dezan, foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo eta Begoña Errazti Esnal andreak aurkeztua (8. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Nafarroako Gobernuako kontseilariak eta zuzendari nagusiek gobernuaren partaidetza duten sozietateetan parte hartzeari buruzkoa, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina (10. or.).

- Galdera, zenbait lanposturi erabateko dedikazioaren araubidea atxikitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, biztanle baztertuen aldera egiten den etxebizitza politikari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Tuterako Gaztambide antzokia zaharberritzeko lanak geldirik egoteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Durangoko Liburu eta Disko Azokan parte hartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Durangoko Liburu eta Disko Azokan parte hartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuko 2001eko Kontu Orokorrei buruz aholku emateko txostena, Kontuen Ganbarak egin (17. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

6/2002 Foru Legea, martxoaren 27koa, Nafarroako Nekazaritza Ganberari buruzko apirilaren 6ko 4/1998 Foru Legea aldatzekoa

AKATS ZUZENKETA

Nafarroako Nekazaritza Ganberari buruzko apirilaren 6ko 4/1998 Foru Legea aldatzeko martxoaren 27ko 6/2002 Foru Legean akats bat antzeman da. Hori dela eta, akats zuzenketa honen bitartez zuzentzen da:

3. orrialdean, bigarren zutabean, artikuluko bakaurrean, bigarren aldaketan, aldatutako testuak lau-

garren lerroan "lanbide-ordezkaritza" esaten duenean, "ordezkaritza proportzionala" esan behar du.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2002-2003 ikasturterako beken deialdian errenta mugak eta beken zenbatekoa igo ditzan

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2002-2003 ikasturterako beken deialdian errenta mugak eta beken zenbatekoa igo ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduaren 192. artikulua eta hurrengo babesean, mozioa bat aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatzeko, Nafarroako Gobernua premiatzen duena 2002-2003 ikasturterako beken deialdian errenta mugak eta beken zenbatekoa igo ditzan erabaki proposamenean ageri diren hainbat neurriren bidez.

Mozioaren justifikazioa.

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen iritziz beharrezkoa eta funtsezkoa da beken politika sustatzea –UPNk egiten ez duena–, bai oro har bai bereziki unibertsitateko ikasleentzat, Nafarroako ikasle guztiak, eskola errendimendu behar bestekoa dutenak, edozein

delarik ere haien jatorri sozioekonomikoa eta bizitokia, goi mailako ikasketetara ailegatzeko aukeren berdintasun egiazkoa lortzea gure gizarteak gainditu gabe daukan ikasgaia delakoan.

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen ustez UPNren Gobernuak azken urteotan beken arloan egin duen politikak ez du lortu gobernu sozialistek laurogeiko urteen amaieran egindako ahalegin handiari eustea beka jasotzen dituzten ikasleen kopuruan eta beken zenbatekoan; gure erkidegoan gai honetan dauden emaitzak Europako herrialdeetako azpitik daude.

Ez da erraz azaltzen unibertsitate mailan 1996/97 ikasturtean irakaskuntzaren kontzeptuan emaniko beken kopurua 4.532 izatea eta 2000/2001 ikasturtean, ordea, 3.031, unibertsitateko ikasleen kopurua gure erkidegoan nabarmen handitu dela kontua harturik.

Praktikan, esan daiteke 1987az geroztik, garai hartan eginiko eskola itunen bidez taxutu baitziren, beken deialdi orokorrak antzeko ezaugarriak gorde dituela funtsezko gaietan, baina, gure ustez, Nafarroako gizartearen errealitate berrira egokitu beharko litzateke bai errenta mailetan bai goi mailako ikasketetara ailegatzeko diren ikasleen kopuruan.

Ildo horretan, Nafarroako sozialistek, bekadunen kopurua handitzeko helburuarekin, beken deialdi orokorreko baldintza ekonomikoaren erregulazioan familiako errentaren mugak ere tarte guztietan igo egin beharko direla uste dugu.

Horrekin batera, gero eta emakume gehiago lanean hasi izana ere kontuan hartu beharko litzatekeela uste dugu eta, horrenbestez, familia batean lan errentak jasotzen dituztenak bi izateak ez du zertan eragin beka eskuratzeko aukera galtzea. Hortaz, gure proposamena da deialdian

aldaketa garrantzizkoa egitea, tarte berria sortuz familian errentak jasotzen dituztenak bi diren kasurako.

Halaber, beken hurrengo deialdi orokorrean laguntzen zenbatekoak handitzea proposatu nahi dugu, alegia, irakaskuntza, garraioa, jantokia, egoitza eta laguntza berezia hartuz, unibertsitateko ikasleen eroste ahalmena pixkana handitzen joatea bermatzeko, Europar Batasuneko gainerako herrialdeetakoekin parekatzeko modukoa izan arte.

Egun indarra duen deialdian, ekainaren 22ko 239/2001 Foru Aginduan eta 2001eko abuztuaren 27an argitaraturiko akats zuzenketan adierazirik

dagoen horretan, deialdi hauetako ohiko edukiak daude, horien artean garrantzitsuenak hauexek:

- Zertarako ematen diren laguntzak: irakaskuntza, hiriarteko garraioa, jantokia, egoitza eta laguntza berezia.

- Bete beharreko baldintza orokorrak: Hezkuntza Ministerioari edo Eusko Jaurlaritzari beka eskatu izana.

- Baldintza akademikoak: kurtsoa errepikatzen ari ez izatea eta kreditu edo ikasgai kopuru gutxieneko bat, kasuen arabera, gaitia izatea.

- Beken deialdi orokorraren baldintza ekonomikoak:

Kide kopurua	1. tarte, gehienez	2. tarte, gehienez	3. tarte, gehienez	4. tarte, gehienez
1	812.292	1.064.110	1.267.209	1.406.703
2	1.624.595	2.128.220	2.534.419	2.813.407
3	2.436.877	3.192.331	3.801.628	4.220.110
4	3.249.169	4.256.441	5.068.837	5.626.813
5	4.061.462	5.320.551	6.336.047	7.033.516
6	4.873.754	6.384.661	7.603.256	8.440.220
Kide gehiago bada, bakoitzeko	670.612	878.500	1.046.205	1.161.340

Arrazoi horiek direla eta, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du Parlamentuaren Osoko Bilkurak onetsi dezan:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beken hurrengo deialdian ikasleek beka eskuratu ahal izateko ezarriak dauden familiaren errentaren mugak goratu ditzan tarte guztietan, aurreko urteko inflazioa gehi ehuneko hamar, bekadunen kopurua handitzeko. Gehikuntza hori aplikatuko zaio, halaber, ondarea dela-eta beka ukatzeko ezarriak dagoen zenbatekoari.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beken hurrengo deialdian bosgarren tarte sor dezan, familiako bi ezkontideek edo ezkontzaren pareko harremanaren bidez loturiko bi pertsonen lan egiten duten kauan familiaren "per capita" errentaren arabera eskaera orde-

natzeko. Tarte horren zenbatekoa izanen da dauden beste lau tarte batez bestekoa bider bi egini ateratzen dena.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du laguntzen zenbatekoa gehi ditzan, hau da, irakaskuntza, garraioa, jantokia, egoitza eta laguntza berezia ataletan, gutxienez aurreko urteko inflazioari 100eko 3 gehituta.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du deialditik ken dezan eman litezkeen beka guztiak, "aurrekontu kreditu" aski ez badago, ez ordaintzeko aukera jasotzen duen klausula, beken gastuak hartzen dituen aurrekontuko kontusaila handitu daitezkeen horietakoa delako.

Iruñean, 2002ko apirilaren 30ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 10 langile baino gutxiagoko enpresak Interneten sartzeko laguntza kanpaina bat egin dezan

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 10 langile baino gutxiagoko enpresak Interneten sartzeko laguntza kanpaina bat egin dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluen eta hurrengo babesean, mozio bat aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatzeko, Nafarroako Gobernua premiatzen duena behar diren aurrekontu ekimenak gauzatu ditzan 10 langile baino gutxiagoko enpresak interneten sar daitezen, alegia, enpresek euren webguneak izan eta sarean edozein operazio, merkataritzakoa zein finantzakoa egin ahal izateko, 2002. urtean laguntza kanpaina bat egiteko asmoarekin.

Berriki amaitu da "etxe@: ordenadore bat erosi eta nabigatzeko baldintza onenak" izeneko programaren bigarren kanpaina, "Nafarroa birtuala" garatzeko helburuarekin eta, zehazki, Nafarroako familia guztiek aukera izan dezaten, baldintza berdinetan, teknologia berriez eta informazio sareez baliatzen laguntzeko eta internet erabiltzen dutenen kopurua handitzeko.

Bigarren kanpaina honetan Nafarroako Gobernuak zikoizkeriarekin jokatu duen arren eta motz gelditu den arren, haren eragina onuragarria izanen da gure erkidegoan interneten erabiltzaileen kopurua handitzeko, eta kopuru hori hain txikia

denez behar-beharrezkoa baita. Gogoratu behar da, beharbada, antzeko programak gauzatu diren beste erkidego batzuetan, hasierakoetan ez zela mugatu dirulaguntza jaso zezaketen ordenadoreen kopurua, eta horri esker lortu dela interneten nabigatzen dutenen kopurua ikusgarriro gehitzea, hainbesteko gorabeherarik gabe.

Ez da hori, ordea, Nafarroako Foru Komunitateak informazioaren sozietatearen arloan duen arazo bakarra, jakina baita Nafarroan oso gutxi direla interneteko konexioa izan eta beren jardura sarea erabiliz gauzatzen duten enpresak. Ezarpen txiki hori bereziki kezkarria da Nafarroako mikroenpresetan, hau da, 10 langile baino gutxiagokoetan.

Ez dirudi oso arrazoizkoa denik, talde sozialistaren iritziz behintzat, erabiltzaile nafarren kopurua handitzea eta kezkarik izan gabe Nafarroako enpresen zerbitzuetara sartzeko erabiltzaile horiek izanen duten aukeraz. Hortaz, ezinbestekoa dirudi, "Nafarroa birtuala" lortzeko kanpainaren bigarren zati honetan, 2002. urtean 10 langile baino gutxiagoko enpresak interneten sartzeko laguntza kanpaina bat gauzatzea, hau da, enpresa horiek bere web orriak eduki eta sarean edozein operazio, merkataritza zein finantzakoa, egin ahal izatea.

Horregatik guztiagatik, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du Parlamentuko Osoko Bilkurak onets dezan:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du dirulaguntzetarako deialdi bat onets dezan, Nafarroako mikroenpresek, hau da, 10 langile baino gutxiagokoek, informatikako ekipoa eta software-a, interneteko konexioa barne, erosi edo berritzeko egiten dituzten inbertsioei % 20ko laguntza emateko, 6.000 euroko gehieneko zenbatekoarekin. Horiek eskuratu ahal izateko beharrezkoa izanen da enpresaren web orria sortzea. Horretarako, deialdi horretan aurreikusiko dira, halaber, interneteko domeinu bat erosi eta web orria prestatzeko laguntzak, gehienez ere 300 eurokoak.

Iruñean, 2002ko apirilaren 30ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da bide eman dezan enbrioi izoztuak enbrioiaren zelula amak eskuratzeko eta zientzia ikerketak sustatzeko erabiltzeko

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA, IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA ETA EUSKO ALKARTASUNA/EUSKO ALDERDI JELTZALEA-PARTIDO NACIONALISTA VASCO PARLAMENTUKO TALDEEK, ETA FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua eta Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko taldeek, eta foru parlamentari milagros Rubio Salvatierra andreak ondoko mozioa aurkeztu dute: "Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da bide eman dezan enbrioi izoztuak enbrioiaren zelula amak eskuratzeko eta zientzia ikerketak sustatzeko erabiltzeko".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen dugun Parlamentuko taldeok, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoari jarraituz, honako mozio hau aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko:

Zioen azalpena:

Nafarroako diabetikoen elkartarekin Osasun Batzordean izaniko lan bilera baten kariatara, sakontzeko aukera izan genuen giza enbrioiaren zelula amekin diabetearen balizko tratamendurako egiten ari den ikerketaren gaien. Beharrezkoa iruditzen zaigu giza enbrioiaren zelula amekin ikerketak egin daitezela laguntzea, zelula ama helduekin eta fetuen zelula amekin egiten diren ikerketen ondoan.

Birsorkuntza lagunduari buruzko 35/1998 Legeak aurrerapausoa ekarri zuen baina ez zuen aurreikusitako hainbat alderdi, gizartearen premiei erantzuten aurrera egiteko egun beharrezkoak direnak.

Horregatik guztiagatik honako mozio hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du honakoa egin dezan.

1. 35/1998 Legea alda dezan, egun gure herrialdean dauden enbrioi izoztuak, bost urtetik gorakoak, erabiltzen laguntzeko enbrioiaren zelula amak eskuratzeko, zelula mota horrekin zientzia ikerketak bultzatzeko asmoarekin.

2. Baimena eman dezan enbrioiaren zelula amekin ikerketak egiteko, zelula ama helduekin eta fetuen zelula amekin egiten direnekin batera.

3. Ekintza berezi bat ezartzea ama zelulekin –helduekin, fetuenekin eta enbrioiarekin– ikertzeko, ikerketa, garapen, eta berrikuntzarako plan nazionalaren baliabideen kargura.

4. Berehalakoan sortzea Zientzietako eta Teknologikoaren Kontseilu Nazionala, autonomia erkidegoen parte hartzearekin, aurrerapen zientifiko eta teknikoaren aplikazioak osasunarekin zerikusi zuzena duten arloetan eragiten dituzten inplikazio etikoak sistematikoki aztertzea.

5. Klonazio terapeutikoaren alderdi zientifiko, sozial eta etikoen inguruko eztabaida bultzatzea, arauak egiteko xedearekin, horrek berma dezan teknika horrek eritasunen kontrako borrokan ahalik eta onura handienak izatea eta aldi berean saihesten dituzten kontrol publiko zorrotzik gabeko garapen batek izan ditzaken arriskuak.

Iruñean, 2002ko apirilaren 30ean.

Eledunak: Juan José Lizarbe Baztán, José Miguel Nuin Moreno, Begoña Errazti Esnal eta Milagros Rubio Salvatierra

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuia premiatzen da SOS Nafarroako sendagileen lanpostuen bitarteko izaerak eragindako egoera konpon dezan

FORU PARLAMENTARI ISABEL ARBONIÉS BERMEJO ETA BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREEK AURKEZTUA

Foru parlamentari Isabel Arboniés Bermejo eta Begoña Errazti Esnal andreek ondoko mozioa aurkeztu dute: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuia premiatzen da SOS Nafarroako sendagileen lanpostuen bitarteko izaerak eragindako egoera konpon dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osasun Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamaikiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Isabel Arboniés eta EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Begoña Errazti andreek, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, mozio bat aurkeztu dute Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

SOS-Nafarroako sendagile koordinatzaileak lan egoera eskasean daude, Nafarroako Gobernuak ez duelako aplikatu gaur arte, azaroaren 21eko 16/2001 Legea, Osasun Sistema Nazionalaren osasun zerbitzuetako osasun erakundeetan estatutupeko langileen lanpostuak sendotu eta betetzeko prozesu berezia ezarri zuena.

Aipatutako legearen arabera, osasun publikoko langileek jasaten duten egoeraren eskasa "ez da soilik hartu behar esparru publikoan giza baliabideak kudeatzeko eredu eraginkor batekin ez oso bateragarritzat, arazoaren iturri ere baita osasun laguntzaren jarraitutasunari begira, eta eze-gonkortasun eragilea profesionalen artean".

Orobat, deialdi honek aukera ematen die osasun eskumenak zituzten autonomia erkidegoei deialdi honetan sar daitezen izaera bereziaz. Neu-

rri hori berezia eta ohi kanpoko da, behin aplikaturik orain arte erabilitako hautapen prozedurak betetzen segituko delako.

Lege honek bidegabeko egoera bat gainditzeko modua eskainiko digu, Osasun Zerbitzu Nazionalako langileek urtetan pairatu dutena eta milaka sendagile lan ezegokorrean eta lanpostuak finkatzeko aukerarik gabe aritu izana eragin duena. Horretarako, hainbat artikulua garatzen dira, praktikan urtetan bere lanean aritu diren bitarteko sendagileentzat lanpostua eskuratzeko lagungarri.

Nafarroan, Osasunbideak lan eskaintza publikoa egin du eta dagoeneko argitaraturik dago lekualdatze lehiaketaren ondoko oposizio-lehiaketa. Oposizio-lehiaketa hori ohiko prozedura erabiliz egiten da: test gisako azterketa eta administrazioarentzat lanean emandako denbora puntuatzen duen baremoa; berezitasun bakarra da osasun arloko arduradunek nahi dutela azterketa "INSALUDen esparruan" egiten den deialdiarekin batera izatea.

Bestalde, sendagile lanetan egindako denborari balorazio bera ematen zaio Nafarroan emana den zein beste edozein autonomia erkidegotan emana; aitzitik, sendagile nafar batek lanpostu bat eskuratu nahi badu "INSALUDen esparruan", lan egindako denbora 2/3 gutxiago baloratuko zaio deialdia egin duen autonomia erkidegoan aritzen den sendagile bati baino.

Horrek, praktikan, 40-50 urte inguru dituzten sendagileak, lanpostu berean 15 urte gutxi gorabehera aritu direnak, langabeziara joatea ekarriko du.

Arrazoi horiek eragin beharko lukete onartzea komeni dela Nafarroako Foru Komunitateak ere prozedura horri ekitea, urtetan erkidego honetan lanean aritu diren aldi baterako bere langileen egonkortasuna zaintzeko, horren ondorioa nafarrentzako zerbitzua eta arreta hobetzea izanen litzatekeelako, Estatuko gainerako erkidegoekin alderaturik diskriminaziorik gertatu gabe.

Horregatik guztiagatik, eta ikusirik beharrezkoa dela lehenbailehen ematea konponbide bat profesional hauen egoerari, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Gobernuak premiatzea berehala konpon dezan eta berariaz, SOS Nafarroako sendagileen lanpostuen bitarteko izaera, azaroaren 21eko 16/2001 Legea aplikatuz. Lege horren bitartez, Osasun Sistema Nazionalako osasun zerbitzuetako erakundeetan estatutupeko langileak finkatu eta lanpostuak betetzeko prozesu berezi bat ezarri zen, enpleguaren egonkortasuna lortzeko xedez.

2. Nafarroako Gobernuak premiatzea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen azaroaren 21eko 1620/2001

ebazpena geraraz dezan; hain zuzen ere, ebazpen haren bitartez "Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua" erakunde autonomoan L.Z.B.ko (Larrialdietarako Zerbitzu Berezia) sendagile izateko 27 lanpostu eta L.Z.A.ko (Larrialdietarako Zerbitzu Arrunta) sendagile izateko 3 lanpostu merezimendu-lehiaketa eta lekualdatze bidez betetzeko deialdia onetsi zen.

Iruñean, 2002ko apirilaren 30ean

Foru parlamentariak: Begoña Errazti Esnal eta María Isabel Arboniés Bermejo

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Gobernuko kontseilariek eta zuzendari nagusiek gobernuaren partaidetza duten sozietateetan parte hartzeari buruzkoa*FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak Nafarroako Gobernuko kontseilariek eta zuzendari nagusiek gobernuaren partaidetza duten sozietateetan parte hartzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeko Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José Mari Aierdi Fernández de Barrena jaunak, 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Gobernu horrek ohikoa du kontseilarien eta goi karguen lansariak osatzea sozietate publikoetan edo Gobernuaren partaidetza dutenetan izaten duten parte hartzetik heldu diren ordainsariekin.

Lehenbizikoa. Zein da Nafarroako Gobernuko kontseilarien eta zuzendari nagusien parte hartzea gobernuaren beraren partaidetza duten sozietateetan?

Hauxe jakin nahi dugu: zein den parte hartzen duten kontseiluen osaketa, bileren aldizkakotasuna, legegintzaldi honetan eginiko bilerak, horietara nor joan zen, nor ez, justifikaturik zein ez, eta guztia banaka-banaka zehazturik.

Bigarrena. Zein izan da horietako bakoitzak aipatutakoagatik jaso duen ordainsaria legegintzaldi honetan, orain arte?

Iruñean, 2002ko apirilaren 29an

Foru parlamentaria: Jose Mari Aierdi Fernández de Barrena

Galdera, zenbait lanposturi erabateko dedikazioaren araubidea atxikitzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak zenbait lanposturi erabateko dedikazioaren araubidea atxikitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko azaroaren 19ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko abenduaren 11n

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak galdera egin du zenbait lanposturi urriaren 1eko 270/2001 Foru Dekretuaren bidez erabateko dedikazioaren araubidea atxikitzeari buruz. Galdera 2001eko azaroaren 19ko 119. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Hona hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna.

Urriaren 1eko 270/200 Foru Dekretuaren 6. artikulua aipatzen dituen lanpostuei dedikazio eskusiboaren araubidea ezartzeko jarraitu diren irizpideei buruz esan beharra dago oinarriturik daudela, oro har, langile horien esku dauden eginkizunen ezaugarrietan, komenigarri egiten baitute, Nafarroako Gobernuaren iritzi eta auto-antolaketarako dituen ahalmenez baliatuz, araubide hori eskatzea, Nafarroako Administrazio publikoen zerbitzuko langileentzako indarra duen Estatutuaren 45. artikuluan eta haren arauzko xedapenetan ezarritakoari jarraikiz.

Hortaz, antolaketa eta informazio sistemen arloko etengabeko eta garrantzizko aldaketa teknologikoen, bistan denez, izaera bereziaz jantzen dituzte haien lanpostuak, horien titularrek ezagutzak atsedetik gabe gaurkotu eta ezarritako sistemei arreta eman beharra eraginez eta horrek lana erabateko dedikazioarekin bete behar izatea dakarrelako.

Aurrekontuan zenbateko ekonomiko handiena duten kapituluetakoa bat, i.a, alegia, kudeatu eta administratzeko eta, oro har, giza baliabideen arlo osoan, ezinbestekoa da departamentuen jarduketan ikuskatze iraunkorra, eta horrek eragin nabarmena du Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagu-

siko lanpostu batzuen eginkizunetan, horiei erabateko disponibilitatearen araubidea atxikitzea justifikatuz.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko lanpostuei buruz esan behar da 270/2001 Foru Dekretuaren zioen azalpenean ezarritik daudela departamentuaren ezaugarri bereziak, erabakia eragin dutenak eta hemen adierazitaz jotzen direnak.

270/2001 Foru Dekretuaren 6. artikuluan sarturik dauden gainerako lanpostuei dagokienez, adierazi behar dut ezen, Nafarroako Gobernuaren iritzi, horien ezaugarri bereziek eragin dutela dedikazio eskusiboaren araubidea atxikitzea, lanpostu horiek eskatzen duten eraginkortasunarekin betetzen direla bermatzeko.

Galderaren bigarren zatian dagokionez, berriz, adierazi behar da ukitutako departamentuekin lanpostu bakoitzaren ezaugarriak aztertzeko zenbait bilera egin ondoren, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak Nafarroako Gobernuari igorri ziola foru dekretuaren proiektua. Proiektu horren edukiaren berri izan dute lanpostu horiek atxikirik dituzten departamentuek, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko idazkaritza teknikoak, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Kontuhartzailetza Zerbitzuak eta Nafarroako Gobernuak berak, araua onetsi zen bilkuran.

Atalburutzak edo bulegoburutzak betetzeko prozeduraren inguruan, biltzar horretan berriki eginko agerraldian esan nuenez, Nafarroako Gobernuak, estatuko transferentzien prozesua behin betikoz amaiturik ez badago ere, lanpostu horiek merezimendu lehiaketa bidez pixkanaka betetzen joateko konpromisoa hartu zuen. Hartara, 2002. urteko eta hurrengoetako lan baldintzak finkatzeko egungo negoziazio mahai orokorraren testuinguruan eta departamentuekin kontsulta egin ondoren, 2001eko azaroaren 14an sindikatuak eman zitzaieen burutza horien merezimendu lehiaketa bidez betetzeko jarduketa plana, zeinaren edukia mahai horretan negoziatzen ari den.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko abenduaren 10ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

Galdera, biztanle baztertuen aldera egiten den etxebizitza politikari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Fernando Viedma Molero jaunak biztanle baztertuen aldera egiten den etxebizitza politikari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko azaroaren 19ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko abenduaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Fernando Viedma Molero jaunak galdera egin du gizarte etxebizitzak eraikitzearen inguruko zenbait gairi buruz. Hona hemen Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak 1998an sortu zuen "Gizarteratzeko Etxebizitzaren Programa" izenekoa, eta harrera ona izan zuen irabazi asmorik gabeko entitate pribatu batzuen artean, zehazki foru administrazioarekin modu aktibo eta positiboan elkar lanean aritzen direnak programa hura garatu eta aplikatzeko. Programa honek mundu mailako onespena jaso du, NBEk hiri ingurunea hobetzeko jardun egokiei buruzko Nazio Batuen III. lehiaketan, Dubain (Arabiar Emirerri Batuak), 2000. urtean, nazioarteko sari bat eman izanak erakusten duenez. Programa hori gizarteratzearen eta hiri-gintzaren arloko garapen jasangarrirako praktika egokitzat hartzen da eta, kategoria horretan, mundu mailako 500 praktika egokien artean dago.

Sortu zenez geroztik 321 etxebizitza ikus-onesi dira eta 673 milioi pezetatik gorako dirulaguntzak eman dira programa horren medioz, eta urte akaberarako, finantzaturiko etxebizitzak 360 inguru izanen direla eta emandako dirulaguntzen kopuru metatua 750 milioi pezetakoa izanen dela espero da.

Bestalde, errentan emateko babes ofizialeko etxebizitzaren gaineko politikari dagokionez, Nafarroako 1997-2000 urteetarako etxebizitza planean 824 etxebizitza hasi ziren -262 araubide berezikoak eta 562 araubide orokorrekoak-. 2000. urtean

90 etxebizitza hasi ziren, ez 46, galderaren sarrean aipatzen den bezala, eta 152 amaitu ziren.

2001. urtean, berriz, gaur arte, errenta babes-tuko 213 etxebizitza amaitu eta 187 hasi dira. Zenbaki horiek handitzea da Gobernu honen nahia, errentako politika sustatu behar delakoan, gizartearen beharrei hobekien erantzuten diona delako, eta hala islatu da 2001-2004 urteetako etxebizitza planean. Halere, gizarte etxebizitza mota honen sustapenak ahalegin kolektibo handiagoa eskatzen du eta, zehazki, lurralde administrazio guztien, bereziki udalen parte hartzea ere askoz aktiboagoa izatea.

Azalpen horiek galderaren hasiera luze baino luzeagoari erantzuteko behin emanik, eta galdera zehatzari erantzuteko, hauxe adierazi nahi dut:

1. Nafarroako 2001-2004 urteetarako etxebizitza Planaren aurreikuspenak errentako 2.000 etxebizitza lortzera bideratzera dago, hau da, kalifikatu beharreko guztien (20.000 etxebizitza berri) % 20.

Alderaketa batek aipatutako zifrei neurria hartzeko bide eman dezake: Euskal Autonomia Erkidegoan, etxebizitzaren prezioen gorakada Nafarroan baino arazo handiagoa izanik, Eusko Jaurlaritzaren 2000-2003 urteetarako etxebizitza plan zuzendariak aipatutako lauhilerako helburua 14.000 etxebizitza babestu berri eraikitzea, horietatik 4.800 errentarako. Kontuan hartu behar da biztanleen kopurua gurea halako lau dela eta horrek dakartzan alderaketa adierazleak direla, 1000 biztanleko, 22,6 eta 3,77 (etxebizitzak guztira eta errentakoak) Nafarroan eta 6,84 eta 2,34 Euskal Autonomia Erkidegoan. Nafarroako helburuak eta plan nazionalak beste erkidego batzuetarako azaltzen dituenak konparatuz gero, aldeak antzekoak edo handiagoak dira.

Begi bistan dago Nafarroako 2001-2004 etxebizitza planaren helburuak asmo handikoak dira, batez ere aintzat hartuz gero abiapuntua ez dutela oso aldekoa.

Hori dela eta, ez da egokia aurreikuspenak aldatzea handitzeko asmoarekin, etxebizitza planaren oinarri diren azterlan soziologikoetan ebaluaturiko eskaerarekin bat ez delako heldu, bate-tik, eta bestetik ez litzateke batere errealista izanen, sektoreak, orotara, horri erantzuteko duen gaitasunaren ikuspegitik. Plan baten helburuek

erdiesten zailak diren erronkak behar dute izan, kasu honetan bezala, baina inolaz ere erdietsi ezinak. Babestutako 17.000 etxebizitzaren kopurua hartzea helburutzat, Parlamentuko talderen batek egin duen bezala, ez da serioa emandako bi ikuspegietatik.

2. Nafarroako Gobernuaren asmoa da Lurzoru Publikoaren Foru Banku sortu berria pixkanaka elikatzen joatea, bide hauetatik:

a) Hirigintzaren aldetik egoera egokian dauden beste ondare batzuk (Noain, Etxauri eta abar) sartzten joatea, baita beste batzuk ere, behar diren hirigintzako sailkapen eta kalifikazioa eman ahala.

b) Toki entitateekin ezarritako hitzarmenen bidez –esate baterako, Iruña, Tuter, Tafalla eta Corella– eskuratutako lurak sartuz.

c) Nafarroako zenbait toki entitateekin harremanak badira, Iruñerriko Lurraren arloko Mahaia-

ren bitartez eta 2002. urtean hasiko den kanpaina orokorraren bitartez, gure erkidegoko udalerrri handienekin hitzarmenak izenpetzeko eta horietatik etorri daitezkeen lurak ere sartuko dira.

d) Lurrak partikularrei zuzenean erosiz.

e) Lurrak desjabetuz, udal planeamendua dela-eta sailkaturiko hirigintza unitateak batera garatzean interesa izan dezaketen toki entitateen partzuergoak eratzearen ondorioz.

f) Hirigintza erreserba gisa mugaturiko lurak desjabetuz, erosteko eta epe luzean garatzeko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko azaroaren 26an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Javier Marcotegui Ros

Galdera, Tuterako Gaztambide antzokia zaharberritzeko lanak geldirik egoteari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Tuterako Gaztambide antzokia zaharberritzeko lanak geldirik egoteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko azaroaren 19ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko abenduaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak Tuterako Gaztambide antzokia zaharberritzeko obrei buruzko galdera egin du. Hona Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren erantzuna:

1. Tuterako Udalarekin obrak finantzatu eta egiteko 1999ko abenduaren 23an sinatutako lankidetz hitzarmenean jasota daude Hezkuntza eta Kultura Departamentuak Gaztambide Antzokia zaharberritzeko obrak direla-eta dituen konpromisoak. Hitzarmen haren bidez, Nafarroako Gobernuak konpromisoa hartu zuen Sustapen Ministe-

rioren eta Tuterako Udalaren artean hitzartutakoaren % 60ko dirulaguntza emateko udalari –gehienez ere 156 milioi pezeta–. Harrezkero, departamentua harremantan izan da etengabe udalarekin, Gaztambide Antzokiko obren eta espedientearen jarraipena egiteko.

2. Sustapen Ministerioak esleitu du obra. Nafarroako Gobernuak, hortaz, ez du inongo harremanik enpresa hartzailearekin.

3. Nafarroako Gobernuari ez zaio gaurdaino informaziorik eman ez obrak berriro hasi izanari buruz ez kostuaren balizko igoerari buruz ere. Hezkuntza eta Kultura harremanetan da une oro Tuterako Udalarekin –harekin baitu sinatuta lankidetz hitzarmena–, ez ordea Sustapen Ministerioarekin eta obren enpresa hartzailearekin.

4. Tuterako Udalaren eta Sustapen Ministerioaren mende daude lehiaketaren kontrola eta tramitazioa, obren adjudikazioa, obraren zuzendaritza eta abar.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 2001eko abenduaren 11n

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús M^a Laguna Peña

Galdera, Durangoko Liburu eta Disko Azokan parte hartzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak Durangoko Liburu eta Disko Azokan parte hartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko azaroaren 26ko 121. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko abenduaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak galdera egin du Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan parte hartzeari buruz. Hona hemen, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 145. artikuluaarekin eta hurrengoekin bat, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Nork hartu du azoka horretara ez joateko erabakia? Zer arrazoi eta irizpidetan oinarritu da Nafarroako Gobernu erabaki hori hartzeko?

Nafarroako 2001eko aurrekontu orokorretan ez da ageri, aurreko aurrekontuetan ez bezala, aipamen espresik azoka horretara joateaz. Berariazko kontusail bat gaitzea helburu zuen zuzenketa bat aurkeztu eta atzera bota zen. Hori dela-eta, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak ez du erakustokirik kontratatu Nafarroako Gobernurako azoka horretan.

Nafarroako Gobernuaren iritiz liburudendak dira bere argitalpenak banatzeko biderik egokiena. Iritzi horren ondorioz, Nafarroa barrenean zein kanpoan argitalpen guztiak horrela banatzen dira, Argitalpen Fondoaren saltokia salbuespena dela.

Nafarroako Gobernua, argitaratzaile gisa, liburu azoka bakar batera joaten da, Nazioarteko Liber Azokara, alegia. Azoka hori urtero egiten da, Madrilen edo Bartzelonan, txandaka, eta bertan ez da argitalpenik zuzenean saltzen.

Nafarroako Gobernuaren argitalpenak salgai daude Nafarroako eta beste erkidegoetako liburudendetan banatzeko sarearen bitartez, eta horren bidez plazaratzen dira zuzeneko salmenta egiten den zenbait liburu azokatan –Durangokoaren kasuan bezala–: Iruña, Tuteran, Madril, Bartzelona...

Nafarroako Gobernuak bere erakustokirik ez izateak Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan ez du esan nahi bere argitalpenak ez direla

zabaltzen azoka horretan, liburudenden bitartez bertaratzen baitira.

Nafarroako Gobernuak bere erakustokia izateak Euskal Liburu eta Disko Azokaren izena daukan azoka batean, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publiko eta entitateen ondoan, legez indarra duen errealitate instituzionala desitxuratzeari da eta Nafarroako Foru Komunitatea Euskal Autonomia Erkidegoaren parte dela ulertzeko bide ematen du, alegia, nafar herritarren gehiengoak arbuatzen duen ideia pentsarazten du.

Nafarroako Gobernuak azken lau urteetan Durangoko azokan aurkeztutako liburu eta diskoen zerrenda zehatza.

Nafarroako Gobernuak aurreko urteetan Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan kontratatu izan duen erakustokian lekua izaten zuten argitalpen berriek eta une horretan interes handiena zuten haiek; bestalde, argitalpenen katalogari buruzko informazioa ere eskaintzen zen, argitalpenen aurkezpen bereziko ekitaldi edo deialdirik egin gabe.

Jakinarazi dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2001eko abenduaren 12an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

Galdera, Durangoko Liburu eta Disko Azokan parte hartzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak Durangoko Liburu eta Disko Azokan parte hartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 2001eko azaroaren 26ko 121. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko abenduaren 14an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Askotariko Parlamentuko Taldeari atxikitako foru parlamentari Milagros Rubio andreak galdera egin du Durangoko Liburu eta Disko Azokan parte hartzeari buruz. Hona hemen, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 145. artikuluekin eta hurrengoekin bat, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Zergatik ez doa Nafarroako Gobernuak aurten Durangoko Liburu eta Disko Azokara?

Nafarroako Gobernuaren iritziz liburudendak dira bere argitalpenak banatzeko biderik egokiena. Iritzi horren ondorioz, Nafarroa barrenean zein kanpoan argitalpen guztiak horrela banatzen dira, Argitalpen Fondoaren saltokia salbuespena dela. Nafarroako Gobernuak, argitaratzaile gisa, liburu azoka bakar batera joaten da, Nazioarteko Liber Azokara, alegia. Azoka hori urtero egiten da, Madrilan edo Bartzelonan, txandaka, eta bertan ez da argitalpenik zuzenean saltzen.

Ba al du asmorik hurrengo urtean joateko?

Nafarroako Gobernuak ez du ikusten orain arte izan duen irizpidea alde batera uzteko moduko aldaketarik egoeran.

Hori jakinarazi dizut behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2001eko abenduaren 10ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

G Saila:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Nafarroako Parlamentuko 2001eko Kontu Orokorrei buruz aholku emateko txostena, Kontuen Ganbarak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 6an eginiko bilkuran, Kontuen Ganbarak Nafarroako Parlamentuko 2001eko Kontu Orokorrei buruz egindako aholku emateko txostena argitara dadila agintzea erabaki zuen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Nafarroako Parlamentuko 2001eko Kontu Orokorrei buruz aholku emateko txostena, Kontuen Ganbarak egina

AURKIBIDEA

- I. Helburua eta norainokoa (17. or.).
- II. Iritzia (17. or.).
- III. Finantzen egoera orriak 2001-12-31n (18. or.).
 1. taula. 2001eko aurrekontuaren exekuzioa
 2. taula. Ekonomia- eta ondare-emaitza 2001ean
 3. taula. 2001eko emaitzen aplikazioa
 4. taula. Egoeraren balantzea 2001-12-31n

I. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2002ko otsailaren 25ean hartutako erabakia betez eta Kontuen Ganbarari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legean xedatuarekin bat, Nafarroa-

ko Parlamentuaren 2001eko kontu orokorrei buruzko txostena –aholku ematekoa– egin dugu.

Egindako eskariari jarraikiz, Nafarroako Parlamentuaren 2001eko kontu orokorrak arrazoizkoak ote diren aztertu dugu. Kontu orokorrak prestatzeko ardua Parlamentuarena izan da. Finantzen egoera orrien laburpena, berriz, txosten honen III. atalean jaso dugu.

Gure azterketa egitean, inguruabarrak kontuan harturik beharrezkoak iruditu zaizkigun auditorerantz-prozedurak eta -arauak aplikatu ditugu.

II. IRITZIA

Gure iritziz, kontu orokorrak behar bezala adierazten du 2001eko aurrekontuaren exekuzioa, Nafarroako Parlamentuaren 2001eko abenduaren 31ko ekonomia- eta ondare-egoera eta egun hartan bukatzen zen urteko ekitaldiari dagozkion eragiketen emaitzak ere, aplikagarriak diren kontabilitate printzipio eta irizpideekin bat etorritik.

Parlamentuak 2001ean zehar izan duen ekonomia- eta finantza-jarduera, berriz, legezotasun-printzipioaren arabera izan da.

Txostena egiteko ardua Francisco Javier Sesma Masa jaunarena izan da, eta hark proposatuta egin dut, indarrean dagoen legedian ezarritako tramite guztiak bete ondoren.

Iruñean, 2002ko apirilaren 19an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

III. FINANTZA-EGOERA 2001-12-31n**1. TAULA. 2001eko AURREKONTU BETEZEA.****Nafarroako Parlamentuko 2001eko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa
gastuen kapitulu ekonomikoka (pezetatan)**

Kapitulua	Hasierako aurrekontua	Gehikuntzak/ gutxiagotzeak	Bateratua	Aitorturiko obligazioak	Ordaindua
1. Langile gastuak	387.950.000	-7.000.000	380.950.000	363.624.921	363.624.921
2. Ohiko ondasun eta zerb. gastuak	299.589.000	25.525.000	325.114.000	262.543.191	257.057.071
4. Transferentzia arruntak	326.128.000	0	326.128.000	311.929.016	311.929.016
6. Inbertsio errealak	1.000.659.000	1.224.825.000	2.225.484.000	514.451.729	507.689.349
8. Finantza-aktiboak	7.450.000	0	7.450.000	7.450.000	7.450.000
9. Finantza-pasiboak	20.500.000	-20.000.000	500.000	0	0
Gastuak, guztira	2.042.276.000	1.223.350.000	3.265.626.000	1.459.998.857	1.447.750.357

**Nafarroako Parlamentuko 2001eko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa
dirusarreraren kapitulu ekonomikoka**

Kapitulua	Aurrekontua	Gehikuntzak/ gutxiagotzeak	Bateratua	Aitorturiko eskubideak	Kobratua
3. Tasak eta bestelako dirusarrerak	1.250.000	0	1.250.000	30.081.992	30.081.992
4. Transferentzia arruntak	1.007.417.000	0	1.007.417.000	1.007.417.000	1.007.417.000
5. Ondare dirusarrerak	5.000.000	15.350.000	20.350.000	65.684.070	65.684.070
7. Kapital transferentziak	1.025.999.000	0	1.025.999.000	750.000.000	750.000.000
8. Finantza-aktiboak	2.510.000	1.208.000.000	1.210.510.000	5.292.726	5.292.726
9. Finantza-pasiboak	100.000	0	100.000	194.816	194.816
Dirusarrerak, guztira	2.042.276.000	1.223.350.000	3.265.626.000	1.858.670.604	1.858.670.604

2. TAULA. 2001eko EKITALDIKO ONDARE ETA EKONOMI EMAITZA (pezetatan)

Gastuak	Urtea		Dirusarrerak	Urtea	
	2000	2001		2000	2001
Langileen eta parlamentarien gast.	433.025.738	480.547.614	Argitalpenen salmenta	779.990	703.045
Tributuak	167.230	186.160	Korrituak	49.706.050	65.684.070
Kanpoko zerbitzuak	122.048.340	145.434.338	Transferentzia arruntak	920.000.000	1.007.417.000
Transferentzia arruntak	297.753.901	311.929.016	Kapital transferentziak	965.250.000	750.000.000
Aldeko emaitza partziala	1.085.912.320	915.256.788	Bestelako dirusarrerak	3.171.489	29.378.947
			Etekinak Aurrekontu itxiak aldatzeagatik	--	170.854

2001eko ekitaldiko ondare eta ekonomi emaitzaren kontua (pezetatan)

Kontzeptua	Urtea	
	2000	2001
Ondare eta ekonomi emaitza	1.085.912.320	915.256.788
Ondarea	(168.467.571)	(78.298.411)
Inbertsio garbiak	(165.140.308)	(76.335.953)
Aktibo eta pasibo finantz. aldaketa garbiak	(3.327.263)	(1.962.458)
Ekitaldiko emaitza	917.444.749	836.958.377

3. TAULA. 2001eko EKITALDIKO EMAITZA BANATZEA (pezetatan)

Kontzeptua	Urtea	
	2000	2001
NONDIK		
Ekitaldiko emaitza doituak	917.444.749	836.958.377
Funts atxikiak gehitzeke	749.406.627	0
NORA		
Foru Ogasun Publiko hartzekoduna, kredituen itzulketa dela-eta (*)	458.851.376	836.958.377
Funts atxikiak gehitzeke	1.208.000.000	0

(*) 2001. urteko itzulketari gehitu behar zaizkio 2000 urtean gastatu ez zirenez 2001era ekarritako funtsak, 1.315.920 pezeta hain zuzen.

4. TAULA: EGOERA BALANTZEA 2001-12-31n (ekitaldiko emaitza aplikatu ondoren)

AKTIBOA	Ekitaldia		PASIBOA	Ekitaldia	
	2000	2001		2000	2001
a) Ibilgetua			a) Funts berekiak		
I. Ibilgetu materiala	2.616.006.654	3.111.241.023	I. Ondarea	2.646.001.535	3.162.244.868
Eraikinak eta bestelako eraikuntzak	2.314.355.612	2.745.787.308	Ondarea	626.535.475	1.142.778.808
Makinakeria, instalaz. eta tresneria	60.815.794	62.747.088	Atxikitako ondarea	2.019.466.060	2.019.466.060
Garraio-elementuak	9.820.681	27.836.234			
Altzariak	104.791.192	109.034.496	II. Aurreko ekitaldietako emaitzak	1.208.242.497	768.810.801
Informazioa prozesatzeko ekipoak	38.712.254	70.391.029	Funts atxikiak gehitzeke	1.208.000.000	768.568.304
Bestelako ibilgetu materiala	87.511.121	95.444.868	Aplikatzeko dauden kontusailak	242.497	242.497
II. Ibilgetu ez materiala	21.514.286	40.560.792	b) Epe laburreko hartzekodunak		
Ikerketak, azterlanak eta proiektuak	1.689.291	1.689.291	I. Onetsitako beteb. engatiko hartzek.	11.907.207	12.248.500
Aplikazio informatikoak	19.824.995	38.871.501	Ek. arrunt. onets. beteb. hartzekodunak	--	0
Aplikatzeko dagoen ibilgetua	--	--	Itxitako ek. onets. beteb. hartzekodunak	11.715.681	12.248.500
			Aplikatu gabeko kontusailak	191.526	0
III. Finantza-ibilgetua	7.381.634	9.442.212	II. Entitate publikoekiko zorrak	462.748.223	842.719.604
Epe luzeko maileguak	7.381.634	9.442.212	Foru Og. Publikoa, zerga kontzeptuak	--	0
			Foru Og. Publikoa, kred. itzultzea	458.851.376	838.274.297
b) Aktibo ibilkorra/Finantza-kontuak			Gizarte Segurantza hartzekoduna	3.896.847	4.445.307
I. Aldi baterako finantza-inbertsioak	918.304	1.015.000	III. Bestelako hartzekodunak	219.338	414.154
Epe laburreko maileguak	918.304	1.015.000	Epe laburrean jasotako fidantzak	219.338	414.154
II. Aurrekontuz kanpoko beste zordunak	259.024	1.006.817			
Osasun laguntzagatiko aur. eta mail.	259.024	1.006.817			
III. Diruzaintza	1.683.038.898	1.623.172.083			
Kutxa	241.578	362.864			
Finantza-erakundeak	1.681.921.760	1.622.694.655			
Finantza-erakundeak	875.560	114.564			
(a+b) AKTIBOA, GUZTIRA	4.786.437.927	4.786.437.927	(a+b) PASIBOA, GUZTIRA	4.329.118.800	4.786.437.927
ABALAK ETA BERMEAK			ABALAK ETA BERMEAK		
Jasotako abalak	73.640.318	74.543.568	Abalistak	73.407.276	74.543.568
Kontu bereziak, guztira	73.640.318	74.543.568	Kontu bereziak, guztira	73.407.276	74.543.568